



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzak 3

Vitoria-Gasteiz, 3 de mayo de 2016

Lehendakaritza

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ETA NAFARROAK HARREMANAK INDARTZEA ADOSTU DUTE

Gobernu-kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren protokolo orokorra onartu du gaur. Protokoloak 18 arlotako lankidetzaren hartzen du barne:

- ✓ Gizarte-zerbitzuak.
- ✓ Berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria.
- ✓ Osasuna eta kontsumoa.
- ✓ Gazteria eta kirola.
- ✓ Hezkuntza eta kultura.
- ✓ Hizkuntza-politika.
- ✓ Bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak.
- ✓ Babes zibila eta segurtasun publikoa.
- ✓ Ingurumena, klima-aldaketa eta lurralde antolamendua.
- ✓ Toki-administrazioa.
- ✓ Turismoa.
- ✓ Nekazaritza- eta landa-garapena.
- ✓ Komunikazio- eta garraio-azpiegiturak.
- ✓ Funtzio publikoa.
- ✓ Administrazio elektronikoa eta zerbitzu publikoen funtzionamenduen hobekuntza.
- ✓ Espezializazio adimentsuaren estrategia eta garapen ekonomikoko faktoreak.
- ✓ Justizia Administrazioa.
- ✓ Ogasuna eta finantza-politika.

Laster sinatuko dute Iñigo Urkullu lehendakariak eta Nafarroako Gobernuaren presidentea Uxue Barkosek.

Bi gobernuek **protokoloaren xehetasunak bihar, maiatzak 4, asteazkena**, aurkeztuko dituzte. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Josu Erkoreka bozeramaileak aurkeztuko du **11:00etan, Lehendakaritzako prentsa-aretoan**.

**Lehendakaritzako prentsa-aretoa
11:00etan
Nafarroa kalea 1
Gasteiz**

Lehendakaritza

**EUSKO JAURLARITZAK LANKIDE BOLUNTARIOEI DIRU-LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIA ONARTU DU, LAGUNTZA HORI
150.000 EUROKOA DA**

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaur 2016rako lankide boluntarioei diru-laguntzak emateko deialdiaren ebazpenari.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzak aurten 150.000 euro emango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei diru-laguntzak emateko. Lankide horiek pobrezian dauden herrialdeen erakunde eta organizazioen sendotze instituzionala lortzen lagunduko dute.

Diru-laguntzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko ditu eta GGKEk eta beste euskal erakunde batzuk aurkeztutako hautagaitzen bitartez emango dira. Diru-laguntza horien gehienezko zenbatekoa urtero 18.000 euro izango dira, gutxienez urte baterako eta gehienez bi urtetarako.

Ustez EHAAn maiatzaren lehenengo hamabostaldian argitaratuko den deialdi hau euskal lankide boluntarioen figura sendotzeko eta onartzeko apustu bat da. Lankide horiek berain gaitasun profesionalak eta giza gaitasuna eskaintzen dituzte eta horren truke ordainsari bat jasotzen dute lan harremanen eremuan.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKAL INDUSTRIAK FINKATU EGIN DU LEGEALDI HONETAN PROIEKTU TEKNOLOGIKO ETA BERRITZAILE BERRIEN BIDEZ ENPLEGUA SORTZEKO JOERA

- Eusko Jaurlaritzak zabaldua du www.spri.eus web orrian Gauzatu programako eskaerak egiteko epea, eta 26 milioi euroko kreditu itzulgarriak banatuko ditu ETEek enplegua sortu eta proiektu teknologiko berritzaile berriak bultzatu ditzaten.
- Legealdi honetako aurreko hiru urteetan, Gauzatu programaren bitartez 140 proiektu berritzaile berri jarri dira martxan (horietatik 48 teknologikoak), 4.850 lanpostu mantendu dira, 1.764 lanpostu berri sortu, eta 308,55 milioi euroko inbertsioa egin da hori guztia lortzeko.
- Eusko Jaurlaritzak 26 milioi euro banatu ditu urtero aurrerakin itzulgarri modura.

Azken hiru urteotan, euskal industriak finkatu egin du enplegua sortu eta mantentzeko duen ahalmena eta negozio teknologiko eta berritzaile berriekin arriskatzeko duen gaitasuna, horren adierazgarri delarik SPRI Taldeak kudeatutako Ekonomi Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Gauzatu-Industria programan aurkeztu eta onartu den proiektu kopuruaren hazkundera. Programa hori, aste honetan berriro onartuko dena eta 26 milioi euro banatuko dituen aurrerakin itzulgarri gisa, Eusko Jaurlaritzaren Suspertze Ekonomikoko Programaren barruan finkatutako tresnetariko bat da, eta emaitza positibo frogatuak eman ditu legealdiko aurreko hiru urteetan.

Hala, 2013, 2014 eta 2015. urteetan, 140 proiektu berri jarri dira martxan Gauzatu programaren bitartez (horietatik 48 teknologikoak) eta 4.850 lanpostu mantendu eta 1.764 berri sortu dira, 308,55 milioi euroko inbertsioa egin delarik hori guztia lortzeko. Hiru urte horietako bakoitzean, eta baita ere aurtengo deialdian (eskaerak egiteko epea ekainaren 23an amaituko da), Eusko Jaurlaritzak 26 milioi euroko aurrerakin itzulgarriak eman ditu baldintza hauekin: 3 urterainoko epea inbertsioa gauzatzeko eta lanpostuak sortzea edota mantentzea gehienez 36 hilabetez.

Urteka, **2015ean** 43 proiektu berri jarri ziren martxan (horietatik 16 teknologikoak) eta 1.662 lanpostu mantendu eta 555 berri sortu ziren, 100 milioi euroko inbertsioa egin zelarik hori guztia lortzeko.

Lurraldeka, 43 proiektu horietatik 18 Bizkaikoak izan ziren, 20 Gipuzkoakoak eta 5 Arabakoak. Aurrerakin itzulgarri horiei esker, euskal enpresek 41,48 milioi euro inbertitu zituzten Bizkaian, 36,56 milioi Gipuzkoan eta 13,49 milioi Araban. Enpleguari dagokionez, 361 enplegu mantendu ziren Araban, 936 Gipuzkoan eta 371 Bizkaian; eta 59 sortu ziren Araban, 223 Gipuzkoan eta 273 Bizkaian.

Onartutako 16 proiektu teknologikoetatik, 6 Bizkaikoak izan ziren, 7 Gipuzkoakoak eta 3 Arabakoak.

2014an 44 proiektu berri jarri ziren martxan (15 teknologiko eta 29 berritzaile) eta 1.708 lanpostu mantendu eta 531 berri sortu ziren, 91,02 milioi euroko inbertsioa egin zelarik hori guztia lortzeko. Lurraldeka, 44 proiektu horietatik 20 Bizkaikoak izan ziren, 19 Gipuzkoakoak eta 5 Arabakoak. Aurrerakin itzulgarri horiei esker, euskal enpresek 31,27 milioi euro inbertitu zituzten Bizkaian, 46,57 milioi Gipuzkoan eta 13,19 milioi Araban. Enpleguari dagokionez, 353 enplegu mantendu ziren Araban, 679 Gipuzkoan eta 676 Bizkaian; eta 54 sortu ziren Araban, 237 Gipuzkoan eta 240 Bizkaian. Onartutako 15 proiektu teknologikoetatik, 10 Bizkaikoak ziren eta 5 Gipuzkoakoak; eta berritzaileen artetik, 14 Gipuzkoakoak, 10 Bizkaikoak eta 5 Arabakoak.

Azkenik, **2013an** 53 proiektu berri jarri ziren martxan (17 teknologiko) eta 1.480 lanpostu mantendu eta 678 berri sortu ziren, 116,75 milioi euroko inbertsioa egin zelarik hori guztia lortzeko.

Gauzatu-Industria

GAUZATU-Industria programa ETEei soilik bideratuta dago. Bere helburua da oinarri teknologiko edota berritzaile handiko enpresetan ekintzailertzan jarduteko edo arriskatzeko gaitasuna hobetuko duten baldintzak markatzea eta babestea. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren asmoa da enpresek produktu berriak garatu ditzatela edo produktu tradizionalak sartu ditzatela merkatu berrietan, edo hobekuntza teknologikoak lortu ditzatela euskal enpresen produktibitatea handitzea helburu duten fabrikazio prozesuetan. Ildo horretakoak dira informazio eta komunikazio teknologietan (IKT) eginiko inbertsioak ere.

Laguntza jaso dezaketen proiektuek gutxienez 120.000 euroko inbertsioa egin behar dute eta lanpostuak mantendu edota sortu behar dituzte gehienez 36 hilabeteko epean. Jaurlaritzak enpresa berri hauei ematen dien laguntza gehienez inbertsioaren %35ekoa da eta 1,5 milioi euroko muga izango dute proiektuko.

Hala, Eusko Jaurlaritzak, ekonomia suspertzeko politikaren ildotik, finantzaketa formulak bultzatzen jarraitzen du, enpresek baliabideak lortu ditzaten jarduera ekonomikoa sortzeko Euskadin.

Enplegu eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK KAMIÑALDEKO LUIZIAREN ONDORIOZ KALTETUTAKO PERTSONEN OINARRIZKO BEHARRAK ESTALTZEKO EZOHIKO LAGUNTZA ONARTU DU

Eusko Jaurlaritzak 240.000 euroko premiazko aurrekontu-saila bideratuko dio Ondarroako Udalarari, Kamiñaldeko luiziaren ondorioz kaltetutako pertsonen oinarrizko beharrak kudea ditzan.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toñaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzak San Inazio kaleko gutxi gorabehera 475 bizilagunen behar oinarrizkoenak (etxeresna elektrikoak, etxeko gaiak, alokairua, etab.) estaltzeko neurria onartu du. Luizien ondorioz, martxoaren 8tik 12ra bitartean beren etxebizitzak utzi behar izan zituzten.

Orduz geroztik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ia egunero egon da Ondarroako Udalarekin harremanetan, ingurua leheneratzeko lanen eta familien egoera eta Administrazioak eman beharreko laguntza-beharrak ezagutzeko. Ildo horretan, hondamendiak gizarte-larrialdiko laguntzetatik eta bestelako prozeduretatik kanpo geratzen direla kontuan hartu behar da. Bide horretatik bideratu izan balira, onuradunek laguntzak jasotzeko epea luzeegia izango litzateke. Horregatik, Jaurlaritzak larrialdien bidea hautatu du.

Egun, kaltetuak Alokabideren eta senitartekoen etxeetan egoteko izapideak egiten ari dira. Izan ere, zenbait hilabete barru Kamiñaldeko magaleko lanak amaitu arte, kaltetuek ezingo dute beren etxebizitzetara itzuli. Aurreikuspenen arabera, luiziak kaltetutako etxebizitzetako lehen lerroko bizilagunek ezingo dute urtebetean gutxienez itzuli eta, gainerakoek, gutxienez lau hilabeteetan.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Ondarroako Udalak batzorde misto parekide bat osatzea aurreikusi dute diru-laguntzen kudeaketa ikuskatzeko.

Ogasuna eta Finantzak

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA Y EUSTAT PARA LA REALIZACIÓN DE LA ENCUESTA DEL GASTO Y FINANCIACION DE LA ENSEÑANZA PRIVADA (CONCERTADA Y NO CONCERTADA CURSO 2014-0215) EN EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la suscripción de un convenio entre el Instituto Nacional de Estadística y el Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística para la realización de la encuesta del gasto y financiación de la enseñanza privada (concertada y no concertada-curso 2014/2015) en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se va a realizar una única investigación en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi de forma que, obteniéndose la información necesaria para cubrir los objetivos previstos en los respectivos planes establecidos de ambas instituciones.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

1,15 MILIOI EURO IKERBASQUEri, IKERTZAILEAK ERAKARTZEKO PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Ikerbasque Fundazioari 1.149.999 euroko diru-laguntza zuzena emateko erabakia hartu du, bikaintasuneko nazioarteko ikertzaileak erakartzeko programekin jarraitzeko, *Research Fellow* eta *Research Professor* deialdien bidez.

Bai Reserch Fellow programak eta bai Reserch Professorrek, ikerketarako talentua Euskadira erakarri eta bertan eustea dute helburu. Funtzio bikoitza dute bi deialdiek: batetik, atzerrian lanean dauden zientzialariak erakartzea (euren ibilbideko une batean joan ziren bertoko ikertzaileak barne), eta bestetik, Euskadin ikertzen dihardutenei beren ibilbidea sendotzeko aukerak eskaintzea.

Ikerlari gazteentzako Research Fellow programak helburu hau du: Euskadin 100 ikertzaile gazte kontratatzea 2013-2017 aldian, urteroko deialdien bidez. Ikerbasquek 5 urteko ikerketa kontratuak eskaintzen dizkie, jakintzaren arlo guztietako ikertzaileei, euren ikerketa lana Euskadiko ikerketa zentroetan burutu dezaten. Hiru eta hamar urte bitarteko ikerketa esperientzia duten ikertzaileei zuzenduriko deialdia izaten da.

Bestetik, ikertzaile seniorrentzako Research Professor programak 2014-2017 aldian Euskadin 50 ikertzaile kontratatzeke helburua du, kasu honetan ere urteroko deialdien bidez. Deialdi hau ibilbide luzeagoko ikertzaileei zuzendua izaten da, ikerketan 10 urtetik gorako esperientzia dutenentzat. Hauek ere, Euskadiko ikerketa zentroetan eta unibertsitateetan burutzen dute euren lana, hautatuak izanez gero.

2015eko balantzea

2015 urtearen itxieran, Ikerbasquek kontratu mugagabea sinatua zuen Research Professor programaren bidez 142 ikertzaileekin, eta Research Fellow deialdien bidez gehituz joan diren beste 59 ikertzaile gazterekin. Egun, ikerketa zereginetan jarraitzen dute guztiek. Ikertzaile horiek zuzendutako ikerketa taldeetan, eta iazko urte amaieran, 580 pertsona ari ziren lanean.

Ikerbasqueko ikertzaileek Euskadira 24,2 milioi euroko fondoak erakartzea lortu zuten 2015ean, eta guztien artean, 837 artikulua kaleratu zituzten indexatutako argitalpenetan, hau da, nazioarteko kalifikazio maila handiko hedabideetan.

Loidi Garitano, Unai 28/12/2015 9:55

Eliminado:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA-ZIKLOen ESKAINTZA PARTZIALA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, agindu bat onartu du gaur izandako bileran, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2016-17 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eta diru-laguntza eska ditzaten eta horien finantzaketa arautzen duena. Deialdi honen kargura eman daitezkeen diru-laguntzen guztizko zenbatekoa 750.000 eurokoa da.

Eskaintza partzialak, modulu edo ikasgai solteetan matrikula egiteko aukera ematen dio Lanbide Heziketako ikasleari. Ohiko matrikulan, aldiz, ikasleek ikasturteko modulu guztietan matrikulatu behar izaten dute. Eskola orduetan bertaratzeak derrigorrezkoa izaten jarraitzen du modalitate honetan, baina denbora gutxiago eskaintzen zaionez, ikasleak bestelako jarduera batzuekin bateratu dezake modulu hauen ikasketa.

Kualifikazio maila hobetu nahi duten 18 urtetik gorako pertsonei zuzendua izaten da eskaintza partziala, beti ere Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte. Lanbide-modulu hori edo horiek gaindituz gero, ziurtagiri akademikoa eta lortutako konpetentziei gehitzeko akreditazio partziala lortzen ditu ikasleak. Matrikula ikasturte hasieran egin ohi da.

2015-2016 ikasturte honetan, Lanbide Heziketako itunpeko 11 ikastetxek eskaintzen dute eskaintza partziala. Zehazki, 15 heziketa-ziklotako 75 modulu, erdi mailakoak nahiz goi mailakoak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

169.600 EURO IRAKASLEAK PRESTATZEKO JARDUERETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, agindu bat onartu du gaurko bileran, 2016-2017ko ikasturtean irakasleak prestatzeko jarduerak egiteko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei emateko diru-laguntzak deitzen dituen.

Diru-laguntzak lehiaketa-prozeduren bidez emateko prozesua arautzea du agindu honek helburu, 169.000 euroko zenbatekoan, 2016-2017 ikasturtean itunpeko ikastetxe pribatuetan Lanbide Heziketako erdi eta goi zikloetako irakasleak prestatzeko jarduerak egiteko.

Ikastetxeko Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko planean antzemandako premien ondoriozkoak izango dira deialdiaren helburu diren prestakuntza-jarduerak eta urteko planifikazioan sartuko dira. Irakasleen prestakuntza-premia horiek ikastetxearen helburuei eta lehentasunezko jarduerari egon beharko dute lotuta.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

GLASGOWeko UNIBERTSITATEKO CENTRE FOR CULTURAL POLICY RESEARCH

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko egunean onartu du Glasgoweko Unibertsitateko *Centre for Cultural Policy Research*-en ikertzaile bisitariatzat 2016/20127 ikasturtean diru-laguntza bat deitzen duen agindua.

44.436 euroko diru-laguntza honek bosna hilabeteko (iraila-urtarrila, otsaila-ekaina) bi aldi hartzen ditu, izangaiek bost hilabeteko aldi bakarra aukeratu ahal izango duten arren.

Ondorengoak dira ikertzaile bisitariak ikerketa-lana egin ahal izango duen arloak: kultura, komunikazioa eta komunikabideak.

EAEko IKASTETXEETARAKO ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILEAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, hartu du Hezkuntza, Kultura eta Kirola, Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean lankidetzeta-hitzarmen bat baimentzeko erabakia, EAEko ikastetxe publikoei elkarrizketa-laguntzaileak emateko.

Hitzarmen honek EAEko ikastetxeetan destinoa duten elkarrizketa-laguntzaileen kopurua finkatzea du helburu, 2016/2017 ikasturtean. Guztira, 99 elkarrizketa-laguntzailekoa izango da ingelesean, 10ekoa frantsesean eta 6koa alemanean, ikasturte honetarako.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK BAT EGIN DU KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO PARISKO AKORDIOAREKIN

- **Egunotan berretsiko dute estatuek.**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik iragarri duenez, «Eusko Jaurlaritzak bat egin du Klima-aldaketari buruzko Parisiko Akordioarekin, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi Ban Ki-moonen sustatuta New Yorken jada abian jarri den prozesuan parte hartzeko».

«Eusko Jaurlaritzak bere egingo ditu garapen jasangarrirako helburuen inguruan nazioarteak abenduan hartutako konpromisoak; klimari buruzko neurrien gaineko bide-orri bat da, isuriak gutxitzeko edo murrizteko eta klima-aldaketarekiko erresilientzia-gaitasuna garatzeko helburua duena», adierazi du Oregi sailburuak.

Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi Ban Ki-moonen herrialde guztietako ordezkariak egin zuten klima-aldaketari buruzko Parisiko Akordioa izenpetzeko. Parisiko Akordioa onartu zuten 2015eko abenduaren 12an 196 aldeek Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan, zehazki, Parisen egin zen Aldeen 21. Konferentzian (COP21).

Agiri horretan, herrialde guztiek konpromisoa hartu zuten munduko tenperaturaren hazkundea 2 °C-koa baino txikiagoa izan dadin, eta, horrek lekarzkeen arriskuak kontuan hartuta, ahaleginak egitea 1,5 °C baino gehiago ez dadin igo.

«Parisen argi geratu zen herrialde-, eskualde- eta udalerrri-mailako erakundeak garelako ingurumen-kalteak ondoen ezagutzen dituztenak; horrenbestez, klima-aldaketaren eta horren ondorioen aurkako gure ekina funtsezkoa da», azaldu du Ana Oregi sailburuak.

2015eko abenduaren 12an, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen XXI. Esparru Konbentzioan, Klima Aldaketari buruzko Akordioa sinatu zuten Parisen, eta, 2016ko apirilaren 22an, aldeek hura berresteko prozesua hasi dute New Yorken. Akordio horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak:

1.- Gogorarazi du klima-aldaketa premia gero eta handiagoa duen mehatxua dela, eta gizakientzat eta planetarentzat ondorio potentzialki itzulezinak dituela; horrenbestez, klima-aldaketari aurre egiteko beharrezko neurriak hartu behar ditugu.

2.- Nabarmendu du beharrezko neurriak hartu behar ditugula premiaz munduko batez besteko tenperaturaren gehikuntza 2 °C-tik beherakoa izateko, industria aurreko mailarekin alderatuta, baita tenperaturaren gehikuntza 1,5 °C-ra mugatzeko ahalegintzen saiatzeko ere, garapen jasangarriaren eta pobrezia desagerrarazteko saioen testuinguruan.

3.- Egiaztatu du gizartearen aldaketa teknologikoa, sozioekonomikoa eta soziokulturala bultzatu behar dela, herritarren bizi-kalitate duina bermatze aldera, tokian tokiko eta mundu osoko ekosistemen mugak errespetatuta betiere.

4º Azpimarratu du herrialdeak, eskualdeak eta udalerrak direla tokian tokiko ingurumen-kalteak ondoen ezagutzen dituzten herri-erakundeak, eta, horrenbestez, ezinbestekoa dela horiek jokabide aktiboa izatea klima-aldaketaren kontrako ekimenetan

5.- Uste du klima-aldaketari aurre egiteko beharrezkoa dela eskualdeko eta nazioarteko lankidetzari eustea eta hura sustatzea, baita garatzeko bidean dauden herrialdeei laguntzea ere, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko babesa eta finantza-baliabideak emanez.

6.- Konpromisoa azaldu du beste herrialde eta eskualde batzuekin elkarlanean aritzeko, nazioarteko lankidetzaren bitartez, adibidez, Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualdeen Munduko Sarea (nrg4SD), Karbono Gutxiko Etorbizunaren aldeko Nazioarteko Erakundea, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia eta The Climate Group, baina baita tokiko sareen bidez ere, Jasangarritasunaren Aldeko Toki-Gobernuen Sarearekin (ICLEI) kasu.

7.- Gogorarazi du Euskadik Klima 2050 Klima-Aldaketaren Estrategia onartu duela, eta horren bidez berotegi-efektuko gasak gutxitzeko eta klima-aldaketara egokitzeko helburuak eta neurriak ezarri dituela, baita karbono hustulekuen kopurua handitzeko ekintzak ere.

8.- Adierazi du Parisko Akordioarekin bat egiten duela eta horren bidez klima-aldaketari aurre egiteko ezarritako jarduerekin konpromisoa hartzen duela, Klima 2050 Klima-Aldaketaren Estrategiaren ildoan, giza garapen jasangarriagorantz aurrera egiteko helburuz.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK GARAPEN JASANGARRIKO EKINTZAK SUSTATZEN DITUZTEN UDALAI, MANKOMUNITATEEI ETA TOKI- ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK EZARRI ETA DEIALDIA EGIN DU

- **Aurrekontu zuzkidura, guztira, 1.810.000 eurokoa izango da**

Gobernu-kontseiluak oniritzia eman dio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aginduari, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duenari.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika islatzen duen Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 agirian dago jasota Eusko Jaurlaritzak ingurumenaren arloan hartutako konpromisoa. Hori dela eta, aipatutako programa Eusko Jaurlaritzak gizartearen aurrean hartutako konpromisoen funtsa osatzen duten 14 plan estrategikoetako batean kokatzen da; konpromiso horiek *Giza Garapenerako eta Hazkunde Jasangarrirako Euskadi 2020* txostenean daude jasota.

Aipatutako programak gure lurraldeko ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia jasotzen du, eta, besteak beste, lehentasunezko jardun hauek ezartzen ditu: -Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz. -Ekonomia lehiakor eta berritzaile bateranzko urratsak ematea, karbono-isurketa txikikoa eta baliabideen erabilera eraginkorrekoa. -Herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea. -Lurraldeko jasangarritasun areagotzea. -Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuta. -Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea. Hori guztia bideratzeko, sail eta erakunde arteko koordinazioa eta kooperazioa sustatuko da, ingurumen-aldagaiak politika guztietan integratze aldera, eta eragile sozioekonomiko guztiei zabalduko zaie ingurumena hobetzeko erantzukizuna.

Agindu horretan Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde hauei zuzendutako diru-laguntzen deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dira: udalak, mankomunitateak, beste toki-erakunde batzuk, toki-erakunde autonomoak, tokiko garapen-agentziak eta tokiko merkataritza-sozietateak. Betiere, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituztenean, honako lerro hauekin bat etorritz: a) Lurzoru kutsatuak. Toki-erakunde publikoen titulartasuneko lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak. b) Klima-aldaketa eta atmosfera. EAEn inguru-airearen kalitatea hobetzea sustatzen duten ekintzak, zarataren inguruko ekintzak, eta arintzera (berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak murriztea) eta egokitzea (klima-

aldaketaren ondorioak murriztera bideratutako plangintza eta ekintzak) bideratutakoak.

c) Kapital naturala eta biodibertsitatea. EAeko dibertsitate biologikoari eusteko eta berau leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak. d) Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 egitasmoen arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.

Eskakizunak.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren proiektuek soilik jaso dezakete diru-laguntza. Diru-laguntza jaso ahal izango dute kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak egin diren lurzoruak aztertzeke eta lurzoru kutsatuak lehengoratzeko ekintzek, bai industria-jarduerak egin diren lurzoruetan, bai 1994ko abenduaren 20ra arte hondakindegia klandestino gisa erabilitako lurzoruetan. Lurzoruak berreskuratzeko ekintzak ez dira diru-laguntzen xede izango, ekintza horien helburua etxebizitzak eraikitzea edo lurzoru industrial bihurtzea bada.

Klima-aldaketaren eta atmosferaren arloan, airearen kalitatea hobetzea sustatzeko ekintzak lagunduko dira diruz, zehazki, partikulak (PM10, PM2,5) eta nitrogeno-dioxidoa (NO₂) murriztea xede dutenak, bai eta zarata murriztera bideratutakoak ere.

Zarata arintzeko ekintzen kasuan, pantaila akustikoak eraikitzeke beharra izanez gero, zarata-murrizketan berdinketa dagoenean, aldeko balorazioa jasoko dute pantaila begetalak dituzten eta hegaztientzako ondorio negatiborik ez duten proposamenek.

Era berean, diruz lagunduko dira berotegi-efektuko gasen isurien murrizketara bideratutako jarduerak eta udal-erakinak birgaitzean gauzatu beharreko ekintzen azterlan zehatzak.

Ez dira diruz lagunduko klima-aldaketan eta airearen kalitatean apenas eragiten duten ekintzak, tartean, hauek: bizikleten aparkalekuak ipintzea eta oinezkoen bideak edo bidegorriak eraikitzea mugikortasun-iturri edo -helmuga diren guneez (bizileku-eremua, ikastetxeak, industrialdeak, kirol-instalazioak, etab.) bestelakoetan; zerbitzuak ematea, zehazki, garraio publikorako linea berri bat eratzea; argiak ordeztzea, energia-auditoretzak egitea eta argiteria eguneratzea; galdarak instalatzea edo ordeztzea, baita egungoek baino isuri gutxiago eragiten badituzte ere; hondakinak kudeatzea; azterlanak edo diagnostikoak (tartean, mugikortasun-planak). Bereziki, ez dira diruz lagunduko irizpide ekologikoak, hiri-ingurumena hobetzeko irizpideak, paisaia txertatzea eta natura-ingurunea ahalik eta gutxien kaltetzea kontuan hartu gabe eraikitako azpiegiturak, ezta biodibertsitatearen babesarekin bateragarriak ez direnak ere.

Diruz lagunduko dira, ordea, honako hauek: natura-habitatetako biodibertsitatea kontserbatzea, lehengoratzzea edo hobetzea xede duten ekintzak; EBn eta eskualde-mailan babestutako fauna- eta flora-espezia basatiak babesteko eta kontserbatzeko proiektuak; flora-espezia inbaditzaileak deuseztatzeke proiektuak, degradatutako natura-habitata lehengoratzzea barne hartzen badute; faunarentzako urmaelak eta hezeguneak sortzea eta lehengoratzzea; lurraldearen konektagarritasun ekologikoaren aldeko jarduerak, tartean, toki-mailako biodibertsitatearen interesguneak lortzea, landaresiak ipintzea eta

azpiegitura berdeak sustatzea (harrapatzeen puntu beltzak murriztea, faunaren pasabideak eratzea, etab.).

Aurrekontuko zuzkidura.

Lehenengo artikuluan adierazitako ekintza espezifikoetarako aurrekontu-zuzkidura, guztira, milioi bat zortziehun eta hamar mila (1.810.000) eurokoa izango da. Honela banakatuko da zenbateko hori: lurzoru kutsatuen lerrora, gehienez seiehun mila (600.000) euro; klima-aldaketara eta atmosferara, gehienez, seiehun mila (600.000) euro; natura-kapitalaren eta biodibertsitatearen lerrora, gehienez, lauhun eta berrogeita hamar mila (450.000) euro; eta jasangarritasunean heztera, gehienez, ehun eta hirurogei mila (160.000) euro.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU BILBAO-RÍA 2000 SA SOZIETATEAREN ERAGIKETEN GAINEKO KONPROMISO-GUTUNAK BIDALTZEKO

Gobernu-kontseiluak baimena eman du Bilbao-Ría 2000 SA sozietate partaidetuaren mailegu-eragiketei loturiko konpromiso-gutunak bidaltzeko. EAeko administrazio nagusiak parte hartzen du Barakaldon, Basaurin eta Bilbon hirigintza-jarduerak planifikatzea eta gauzatzea xede dituen Bilbao-Ría 2000 SA sozietatearen kapital sozialean.

Jarduera horiek finantzatzeko, sozietateak mailegu sindikatu bat izenpetu zuen sei finantza-erakunderekin 2009ko ekainaren 24an, 180 milioi euroko muga, 95.701.339,97 euroko saldo bizia eta 2015eko abenduaren 20ko mugaegunarekin, hipoteka-bermearen eta bazkideen *comfort letteren* konpromisoa barne.

Horretaz gain, 2011ko martxoaren 10ean beste mailegu sindikatu bat kontratatu zuen, 50 milioi euroko muga, 5.785.582 euroko saldo bizia eta 2017ko abenduaren 20ko mugaegunarekin, aurrekoaren berme mota berdinak barne.

Eragiketa horiek birnegoziatzeko prozesuaren barnean, sozietateak eta finantza-erakundeek, batez ere, eragiketa horien amortizazio-baldintzen aldaketa dute hizpide. Horretarako, finantza-erakundeek konpromiso-gutunak berritzea eta eguneratzea eskatu dute, eragiketa horien mailegu-kontratuen ondoriozko betekizunak behar bezala beteko direla bermatzeko.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK PREMIAZKOTZAT JO DITU HAINBAT DESJABETZE, ERREPIDEAK, SANEAMENDUA ETA UR-AZPIEGITURAK HOBETZEKO

- **Bakion, Bilarren, Mungian eta Mutiloan**

Gobernu-kontseiluak premiazkotzat jo du Arabako Foru Aldundiak «A-3218 errepideko, 71,54 kilometro-puntutik (elkargunea A-124 errepidearekin) 77,84 kilometro-puntura arteko (elkargunean A-3328 errepidearekin) errepidea handitzeko eta trazatua hobetzeko proiekturako behar diren ondasunak eta eskubideak okupatzea, nahitaez desjabetzeko.

Era berean, premiazkotzat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkoak diren ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, jabetza nahitaez kentzearen bidez, Mutiloako saneamendua Oria Garaiko biltodi nagusiarekin lotzeko.

Halaber, gobernu-kontseiluak premiazkotzat jo du Bizkaiko Partzuergoak beharrezko dituen ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, Mungiako ekaitz-tangaren proiektua egiteko.

Azkenik, gobernu-kontseiluak premiazkotzat jo du Bilbo Bizkaia Uren Partzuergoak beharrezko dituen ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, Bakioko hondakin-uren araztegiko ezpondak egonkortzeko.

Presidencia

LAS COMUNIDADES DEL PAÍS VASCO Y NAVARRA ACUERDAN REFORZAR SUS RELACIONES

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy un protocolo general de colaboración entre la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Comunidad Foral de Navarra. Este protocolo, incluye un trabajo conjunto en 18 ámbitos de actuación:

- ✓ Servicios Sociales
- ✓ Igualdad y Violencia contra las mujeres.
- ✓ Salud y Consumo.
- ✓ Juventud y Deporte.
- ✓ Educación y Cultura.
- ✓ Política lingüística.
- ✓ Paz, Convivencia y Derechos Humanos.
- ✓ Protección Civil y Seguridad Pública.
- ✓ Medio Ambiente, Cambio Climático, y Ordenación del Territorio.
- ✓ Administración Local.
- ✓ Turismo.
- ✓ Desarrollo Agrario y Rural
- ✓ Infraestructuras de Comunicación y Transportes.
- ✓ Función Pública
- ✓ Administración Electrónica y mejora del funcionamiento de los Servicios Públicos
- ✓ Estrategia de especialización inteligente y factores de desarrollo económico.
- ✓ Administración de Justicia.
- ✓ Hacienda y Política Financiera:

El protocolo será firmado próximamente por el Lehendakari, Iñigo Urkullu y la Presidenta del Gobierno de Navarra, Uxue Barkos.

Ambos gobiernos presentarán a los medios de comunicación los **detalles de este protocolo mañana miércoles día 4 de mayo**. Por parte del Gobierno vasco, será su Portavoz Josu Erkoreka quien comparezca a las **11h, en la Sala de Prensa de Lehendakaritza**.

Sala de Prensa de Lehendakaritza
11:00h
C/Navarra Nº 1
(Vitoria-Gasteiz)

Presidencia

EL GOBIERNO APRUEBA LA CONVOCATORIA DE AYUDAS DIRIGIDAS A PERSONAS COOPERANTES, POR UN TOTAL DE 150.000 EUROS

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la resolución por la que se convocarán las ayudas a personas cooperantes para 2016.

En concreto, el Ejecutivo vasco concederá este año 150.000 euros a subvenciones para personas cooperantes de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que contribuirán al fortalecimiento institucional de entidades y organizaciones de países empobrecidos.

Las ayudas serán gestionadas por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y se concederán a través de las candidaturas que presenten ONGD y otras entidades vascas. El importe máximo de cada una de estas ayudas será de 18.000 euros anuales, para un periodo mínimo de un año y un máximo de dos.

Esta convocatoria, que se prevé publicar en el BOPV la primera quincena de mayo, es una apuesta por la consolidación y reconocimiento de la figura de las y los cooperantes vascos, quienes solidariamente aportan sus cualidades profesionales y humanas y reciben, a cambio, una remuneración en el marco de una relación laboral.

Desarrollo Económico y Competitividad

LA INDUSTRIA VASCA CONSOLIDA EN ESTA LEGISLATURA LA TENDENCIA DE CREACIÓN DE EMPLEO DE NUEVOS PROYECTOS TECNOLÓGICOS INNOVADORES

- El Gobierno Vasco abre el plazo de solicitud en www.spri.eus del programa Gauzatu y concede 26 millones de euros en créditos reintegrables para que las pymes generen empleo e impulsen nuevos proyectos tecnológicos innovadores
- En los tres años anteriores de esta legislatura el programa Gauzatu ha servido para poner en marcha 140 nuevos proyectos innovadores, de los que 48 han sido tecnológicos, se han mantenido 4.850 empleos, creado 1.764 nuevos puestos de trabajo y todo ello ha supuesto una inversión empresarial de 308,55 millones de euros
- El Gobierno Vasco ha concedido cada año 26 millones de euros en forma de anticipos reintegrables

